

Meteorologia, Testamentu Zaharretik gure egunotara

Peio Zabala

Meteorologia gaztea da: zientzia mailan oso gaztea. Baina gizakiaren jakinminen mailan, eguneroko bizibeharretik?

Gizakion behar eta estimuaren aldetik, kobazuloetatik irtenik, fruitu eta haziak biltzen hasi zenean, ehiza zaintzen, eta zer esanik ez, lurra lantzeraz eta laborea zaintzeraz igaro zenean... aroaren kapritxoei nondik antzeman? Nola jakin? Nondik ikasi, egunero begiz-begi erreparatzeak ez bazen?...

Alde horretatik auskalo noiztikakoa den, Noeren garaiko eta aspaldikoagoa... Abel ek eta Kainek ere (historikoak ez diren arren) beharko zuten jakin... Ziurrenera, halako zentzu fin landua izango zuten, edo sen txorrotxen bat zutenak izango ziren orduan ere... Moderniako biztanle irratitelezaleok galdua dugun 'intuizio naturala', antzinako haiek beti piztuta zebilkiten, eta goizero, eguerdioro eta arratsero sintonia berezian sumatu nahi zuten, eguneroko martxa antolatuko bazuten.

Naturaren zikloak, urtaroenak, eguzkiaren gorakada bezala beheko bide udazkenekoa, egunaren luzatzea nahiz murriztea, astroen posturak goiko sabaian, ilargiaren nondik-norako misteriozko hori... hori dena gogoan zuela, antolatuko zuen herri bakoitzak bere egutegia. Bestalde, ezinegon asko sortzen dira, batez ere atmosferaren ezinegona, ekaitza bera eta beste fenomenoak gertutik nozitzean. Beldurak ere badu zerikusia, mendietan edo toki gorenetan bizi zarenean, edo ibaiondoan uholde garaian, edo haizete, eurite, harrite eta beste antzerako astinaldietan.

Uzta eta laboreen onura eta soroen eta belardien erabilgarritasunak ere, zuhaitz eta fruituondoaren mesedeak eta, oroar, naturatik bildu behar zituen mesede guztiek ere atezu eta eguraldiaren eskizian bizitzera, beti erreparatzera ekarriko zuen gizakia.

Izango ziren tartean, zaletasun bereziko gizon edo emakume edadekoak, artzain edo izadian gehiago bizi zirenak, zentzu bereziaren jabe zirenak, aroaren martxari egokiago antzematen ziotenak. Naturarekin bat bizi zen laborari edo artzainaz hori dena esan bagenezake, pentsa dezagun, herri ta hiri bakanetan bizi zirenen artean, agintariak, erregeren ingurukoak, komeni zitzaielako gerra eta borroka luzeetarako, aldamenean beharko zituztela eskiza berezian zebiltzan horrelako artistak.

Eta noski, astronomiak edo zeruko mugidari erreparatzeak sortuko zien lehen egutegi halamoduzkoak egiteko behar zuten ekarria: lurraren martxan, guk urtaro dei ohi ditugunak, badirudi nahikoa aspaldi ezagutzen zituztela ekialdean.

NOIZ HASI OTE ZIREN?

Pentsa genezake Noek berak zeozero jakingo zuela: uholde itzel handi ikaragarria aurreikusi du. Nolabait igarri zion... Baina, Bibliatikoa geroxeago erreparatuko ditugu. Hel deiegun herrialde antzinatekoei oroar begiratu...

Pentsa inportako zitzaien Mesopotamia eta inguru emankor haietan: zeruko astroen bidea eta aroaren ohikoena uztartuz egiten zuten egutegia. Beste horrenbeste

Egipton: Nilo ibaia noiz izango gainezka, uztaren gorabeherak halaxe gobernatu ahal izateko eta horri loturik zekusaten Sirio, Canis major edo Canicula zelakoa eta beste izarren agertzearekin lotua. Josek iragarritako Faraonen ametsetako 7 behi gizen eta hezurretaraino flakatu haiekiko 7 kosetxak ikusita, ez al dugu bera iragarpen luze eta ondorioz betea izan zuen lehenetakoa, ofiziala gainera, kasu honetan... Baina, hara bitxikeria: Egiptoko apaiz jakinzaleek topatu zioten iragarpen honi sekreto gordea izan zitekeena: Nilo ibaiak bere urhandien eta ur kaxkarragoen artean, 14 urteko zikloak omen: zazpi alde batera eta zazpi bestaldera. Ilargiaren bi koska ote tartean zebiltzanak?

Baina, ibilian, aroaren gorabehereri eta epe laburreko koska aldagarriei antzeman nahia agudo bistaratu zen lurralde gehienetan. Zer esanik ez, urte batzuen harilean sortzen ziren hotzaldi edo beroaldi nahiz lehorten nabarmenen ostean eta beraien ondorio zitalak bultzata. Antzeman nahia, koanto!

Aroaren iragarpen lehenetakoa, zalantzarik gabe, egurats nahiz eguraldiaren ondoriobidez egiaztatu zutelako ikasi zuten: fenomeno jakin batzuen ostean aro ta eguraldi genero berbera zetorren. Kontxo! Egiaztapen hau ekialdeko lurralde bakoitzean, herri ezberdinetan eman zen (idatziz utzi dizkigutenetakoak dakizkigu, ez ahaztu: idatzi ez zutenen berri ez daukagu): Eufrates ta Tigris ibar eta bailaretan, Nilokoetan, Indo inguruan, Asiako Erreka Horia deitu luze horren ibar ederretan, eta, gertuago, Mediterraneo inguru biztanledunean.

Gelditu zaizkigun eta utzi dizkiguten erranairu, atsotitz eta esaera zaharretan aztarrika ibiliz, hala bildu izan da herri zahar haien jakinduri aspaldikoa. Denetik dago beraietan: mitologia kutsua dutenak (inori erantsi behar bada, aroaren eragina), klimari eta eguraldi jokaerei erreparatuz (dela zeru itxurari, haize eraginarekiko eskarmentuz, hegaztien pasaerako hegadari esker, zuhaitzen hostatze nahiz jauste data aurreratu edo atzeratuekin, landare loratze ezohikoekin, txori migrarien presentziaz, etabar) ikasi zituztenak, azken batean.

Orduko poemak ere badute tarteka testigantza itxurazko eta jakingarririk. Biblia bera dugu horren kutxa aberatsa. Baina baita inguruko herrietako kulturetan ere, kontu argi esanguratsurik badugu. Adibidez: Babiloniar poema batzuk K.a.ko 2000 urte ingurukoak dauzkagu: kreazioko ikuspegi bitxi nahiz dilubio nagusiaren adierazpenak ditugu beraietan. Seinale, kontu ezaguna izan zela Noeren makro-uholdearena inguru haietan. Hori bai, hebraitarren artean bezala, eta greziar nahiz erromatarren artean gero bezalatsu, beti beti jainkoren baten kapritxoak ez bazen, gurari halamoduzkoren baten eraginetan sorturikoak denak, inportanteenak.

Gigalmesh asiar epopeiak, adibidez, egungo tsunamien eta Katrinaren antzeko ekaitz itzel eta haizete bortitz neurrigabeen berri damaigu, eta uholde itxuragabe ta kaltegieen notizia, baina Noerena baino 10 mende, 1000 urte aintzinagokoa litzatekeena berau. Seinale hau ere, uholde galantak sarri samar gerta ohi zirela alde batean bezela bestetan ere.

Babilonian, Daviden eta Salomonen gorteetan idazleek lan egin baino lehen, lokatz taulatxoetan idatzirik gorde ohi zituzten kontuak. Haien astrologoek –babiloniar nahiz kaldear- iragarri ohi zituzten sasoi hartako fenomeno eguraldiarekikoak, hala lur azaleko nola astronomiko guztiak. Planeten ibilera zen erreparagai zutena, eta baita zeru parean eta ortzi bazterretan azaldu ohi ziren margo-kolore-hauts zein fenomeno ezberdinak. Zer esanik ez, ilargiaren nahiz eguzkiaren barano edo koroe uztai xurixka tamaina ezberdinetakoekin: hala ttikiena, 22 gradutakoa, ‘turbasu’ zeritzana, nola

handiena, 46takoa, ‘supuru’ deitzen ziotena. Esaera zaharrak ere bazituzten eguraldiari buruzkoak, eta haietako batzuk Londonen, Britainiar Museoan daude ikusgai buztinezko adreilutxoetan: adibidetarako bat: “Eguzkiak uztai xuria dueneko, euria dator”.

3000 urtez haruntza, antzinago, beraz, txinatarrek, Amarillo ibaitzarraren onura aberatsetaz gozatzen, urtaroen etorrera igartzen zuten izarrei begira. K.a.300 urtetarako, nekazal egutegi fijo bat asmatua zuten fenologiari eta meteorologiari erreparatuz, urtea 24 jaialditan banaturik zutela.

Aroaren eta eguraldiaren fenomeno meteorologikoak, horiek denak gizakien eskumenetik urrun zeuden: dibinitatearen esku uzten zituzten. Baina, jakina, ahal bazen, zeozer bederen lortzen saiatu beharra zegoen: apaizen lana izango zen, otoitz eta eskaintza bidez, jainko horiek begioneko izan zitezen saiatzea, uzta eskasen eta goseteen garaietan batipat. Hainbeste jainko eta jainkosen artean, denak ez ziren arduratzen meteorologiaz, noski. Halere, ezagunenak eta oparituenak honakoak genituzke: Indiar jainko Vedikoak, Morduk Babiloniarra, bertakoentzat; Egipto aldeko aroaren enkargua Osirisek zuen; hebertarrentzat Yahvé, eta greziarrentzako lana Olimpoko Zeusek lurrean eta Poseidonek itsasoan.

Greziarren kultura zorrotz eta zabalera sartu aurrez, ikusagun Bibliatiko ikuspegi erlijioso bezain jakituriaduna, estimatzekoa bada eta...

Aipatu ditugu lehen Noe, Jose Egipton, eta Jonas? Ez diot balearen hiru egun eta hiru gauetako buruzko pasarteari buruz, baina, jende haiek badute ekaitzen berri eta baita ere erremedioetarako bide bat, txotx eginda bat uretara botatzekoa... Ekaitza baretuko bada, oparia behar du, baina baita Jahvek lagundu ere bere bidali beldurti eta ihes egin duenari.

Moisesen inguruko eta garaikoak ere hor daude:

- Sugarretan erretzen ez den sasi edo elorria, gori gori...
- Bera ttikitan saski pikez igurtzian Nilon behera...
- Itsas gorria lehorrean igarotzen dutenekoa...
- Ekaitz beldurgarrien artean 10 mandamentuen harlosak...
- Basamortuan: ur iturriak harkaitzean
- hegazti andana txabolategian
- oti eraso ikaragarriak, oti-hodei itxiak...

Sabai gaineko eta sabai azpiko urak...

Gen 1,7: “Jainkoak sabaia egin zuen eta sabai azpiko urak sabai gainekoetatik bereizi zituen”. Hitz ezberdinak izan ditu ‘sabai’ delako ‘zeruak’, ‘ortzi’ nahiz ‘izarrate’, ‘firmamento’aren sendotasuna adieraziz beste hainbat hizkuntzetan. Halatsu Job-enean (37,18): “zeru-sabaia, metalezko ispilua bezain tinkoa”... Hebraitarrek, goiko urei eusteko, sabai trinko garbi zehargia ikusten baitzuten; horregatik ‘metalezko ispilu’ Job-ena. Hango leiho eta ateak zabaltzean, euria zetorren lurrera. ‘Targum’ batean, ‘hiru behatz’ en neurria zuela sabai horrek, hala zioten. Salmoetan, aldiz, zeruko ‘goi-gelak’ aipatuko dira: “Zeure goi-geletan pilatzen duzu ura... goi-geletatik ureztatzen dituzu mendiak”.

Gen 2,6: "Lur-azala hezetzen zuen lurrina zerion lurrari"

Hebraitarren artean, ‘lurrina’ esateko hitza gure ‘iturburu’ edo ‘umel lurrina’ litzateke. Vulgatan ‘iturri’ itzuli zuten. Sumeriarren eta akadiarren ‘erreka’ edo ‘ibai’ omen da. Adituek ‘euri-hodei’, ‘euri-laino’ eta ‘euri-lurrin’ itzuli izan dute. Errabinoek ‘targum’etan ‘hodei’ deitu diote, edo ‘laino’. Joshua errabinoak, “ludi osoak sabai-gaineko euri putzutik zurruputzen du euria” zioen harako ‘zeruko euriz ureztatzen da lurra’ (Deut 11,11) argituz. Eta lur-azaletik sorturiko lurrinak, hodei egin eta zeru-sabairaino igotzean, -hala zioen Joshuak- zahagi baten antzera jasotzen dute euria, eta gero “ur-tantak biltzen ditu eta euri bihurtzen, eta hodeiek isurtzen dute zaparrada modura jende gainera”, Jobek deskribatzen duenez (Job 36,27).

Shekinah

Hitz honek biltzen du judutar beranduko konzeptu bitxienetakoa: literalki ‘egoitza’, ‘gela’ edo ‘egongela’ esan nahi du. Eta ‘shekinah’ hitzarekin bildu nahi dute “Historian barna Jahvek bere herriaren erdian izan duen presentzia berezia”. Berau genuke juduen teologiak landu eta sortu duen konzeptua; lainoa eta hodeia, beraz, Jainko presentzia ezin atxemanikoa, non eta zeinetan, Jainkoaren eta ludiaren bitarteko delarik, Haren traszendentzia atxikiezina gordeko eta izendatuko litzatekeen. Lurraren lurrinetik sortua, gorantzaka beti, goiko eta beheko bitarte horretan pulunpatuko litzateke. Bertatik hitzegingo edo orruegingo luke Jahve jaunak. Antzematen zaio, baina ezin aurrez aurre ikusi. Hodei nahiz laino, barrura sartu ahala, zeure baitan ere sartzen zaitu, ez duzulako gertutik urrunera ezer ikusten: presentzia berezi, beldur nahiz errespetuzko hori, dibinitatearen gertukoa sentitu zuten. Horrela, hodeiaren presentziak Jahveren gertu urruna, Haren presentzia ezin atxiki gertu-urrunekoa adieraziko zien. Halaxe hainbat adibidetan:

- Sinai mendian, Irt 19, 16: “Hirugarren eguna argitzean, trumoiak eta tximista, laino itxia eta turuta-hots ozena izan ziren mendi gainean. Beldur-ikaraz gelditu zen herri osoa kanpalekuan”. - Isaiasen agerkarian, Is 6, 4: “Ahotsaren oihuaz, tenpluko aterpoek dar-dar egin zuten, eta tenplua kez bete zen”. - Tabor mendian, Mk 9, 7: “Hodei batek estali zituen eta mintzo hau entzun zen hodeitik: Hauxe dut neure Seme maitea. Entzun berari!”. - Igokundekoan, Ap Eg 1, 9: “Gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu zien arte”.

Hodeia bera izango da Jahve jaunaren egoitza edo gurdia ere: Sal 18, 12: “Gordelekutat hartu zituen ilunpeak, etxola gisa bere inguruan hodei-laino euritsuak. Haren aurreko distiraz, tximist eta sugarrezko ikatz gori bihurtzen ziren hodeiak. Ortzitik trumoi joarazi zuen Jaunak, tximista eta ikatz goriak sugarretan”. Sal 104, 3: “Hodei gainean kokatzen duzu zeure karroza, haize-hegaletan zabilta”.

Jainkoaren Semea hodei gainean datorren gisara, Dan 7, 13: “Gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruetako hodeietan etortzen”, hala berean etorriko da Jesus Parusian (azken egunean), Mat 26, 64: “Gizonaren Semea zeruko hodei gainean etortzen ikusiko duzue”. Apok 1, 7: “Hara, hodei artean dator”.

Salm 135,7: "Hodeiak zerumugan gora igoarazten ditu, erauntsiak tximistaka lehertarazten, haizea bere gordelekuetatik aterarazten"

Lurruna eta hodeiak, hainbeste klasetako laino eta torre-lainoak ageri zaizkigu, tximist-haize-erauntsi eta guzti ahapaldi honetan. Jeremiasen berdin deskribatzen du bi tokitan: “Urak zeruan pilatzen dira, hodeiak zerumugan gora igotzen, erauntsiak tximistaka lehertzen, haizea bere gordelekuetatik ateratzen” (10,13; 51,16). Esaera Zaharretan ere (25,14) bildu dute hodei handien kontua, baina beste eskarmentu bat ageri da bertan: “Hodei eta haize handiak, baina euririk ez... horrelakoxea da erregaluak agindu eta ematen ez duena”. Gure politikariak hauteskunde kanpainan ezagutu ote zituzten...?

Salmogileak, poesia garbiz, beste hainbatetan bezala, erauntsi ekaitz baten portaera damaigu: lainoak zerumugan gora, ortzi kantoietik datoz, gure buruen gainean pilakatuz, zerua estali eta euria botatzen dute lurra ureztatuz... Erregeen I Liburuan (18,44-5) daukagu beste deskribapen ederra: “Esku-arra beteko laino koskor bat dator itsasaldetik... Zerua geroz eta ilunago jarri zen, hodei eta aldagoi-haizearen eraginez, eta izugarritzko erauntsia egin zuen”

Kohelet 1,7: "Ibaiak oro itsasora doaz eta itsasoak ez du gainez egiten"

Bizitzako misterioetako bat: Ibaiak behin eta berriro itsasora bidean, bide bera eginez... Goiko uretatik datoz eta nola ez da betetzen? Targum batean honela saiitzen ziren argitasunak ematen: “Eguzkia goizero ekialdeko leihotik sartzen da, ekialdetik mendebalerantz hegoaldeko leihotik ateratzen da eta itsasoen azpian atsedean hartzen du gauzez, gero iparraldetik jiratuz, berriro ekialdetik sartzeko... Eta erreka eta errekaetako ere, ludia uztai zabalez inguratzen duen itsasora doaz: itsasoa ez da betetzen eta itsaso azpiko ubidetan barrena, berriro iturburu eta iturri mendikoetara itzultzen dira”.

Ekialdeko kulturaren kontu ezinjakineko eta ezkutuko gehienak itsaspe ilun zabal horretan gordeta zeuden: hala ‘eguzkiaren itsaspeko bideak’, nola ‘itsas uren ubide ezkutu mendietaraino igotzen direnak, gero iturrietatik irtenik erreka eta ibaietan behera itsasoraino jaitsiko direnak’. Hitzarmen batean ageri denez (Esarhaddon), ‘uholdeak lurraren errailetatik gora’ ateratzen ziren.

Aristofanes dramadazlearen “Hodeiak” lanean bada pasarte bat Koheletenarekin antzik duena: “Akaso uste duzue aurten iaz baino beteagoa dagoela itsasoa? Ez, ez; ez da batere hazi itsasoa, hainbeste ur iritsi zaion arren... Halaxe zara zu, pilatzaile asezin hori!”

Babiloniako Talmud liburuak esango digu zergatik ez den itsasoa betetzen: “Hasierako uren gainera geroz datozkien ur guztiak, arinagoak baitira betiere, ur zahar azpikoek xurgatzeko abildadea dutelako ez da betetzen itsasoa”.

“De Rerum Natura” liburuan, Lukreziok bildu du bere garaiko azalpen bitxia: “Harritu egiten dira itsasoa inoiz betetzen ez delako. Nola beteko da, bada? Ibaiak han isurtzen dute dena, bai. Baina, lurrak, berez hain porotsua denak, itsasoa alde guztietatik inguratzen du, eta porositate horri esker, itsasoko ur gazia, lurrak bere errailetara iragazten du, gazitasuna galduaraziz eta garbi garbi goiko iturrietan berriro azalaraziz”.

“Naturales Quaestiones” liburuan, Senekak berak borobilduko du kultura hau bera, esanez: “Beraz, itsasoko ura lurraren barneko bide ezkutuetan sartzen da, gero

kanpoko bide argietatik berriro itsasora itzultzeko. Lurpeko bideok estugune eta bihurgune asko dituztenez, handik igarotzean gezatzen eta purifikatzen da ura, garbi garden bihurtuz”.

Pliniok bere “Historia Naturalis” lanean ñabardura poetikoagoz jantzi digu teoria berori: “Kreadoreak ludia eta ura biak besarkada onurazkoan estutu nahi izan ditu. Lurrak bere bularra zabaltzen dio itsasoari. Itsasoak lurrari zain guztiak, barrura bezala kanpora, gora bezala behera, ureztatzen eta betetzen dizkio, baita mendigain eta muino goikoetaraino ere: hara iristeko, lurrak bere pisuz, zainbide horiei daragien presioagatik, hala ateratzen da ura borborka iturrietatik saltaka”.

Aristotelesek ere bere “Meteorologica” lan bikainean, kontu hau sakonki lantzen du, tartean bere maisu Platonen uraren eta ibaien teoria okerrak zuzenduz. Ikuspegi berri bat damaigu maisuak: “Ura ebaporazioz lurrintzean, askoz azkarrago lurruntzen da superfizie zabalean hedaturik badago, itsasoko zabaleran gertatzen den bezala. Hori gertatzen da ibaien eta erreken ekarriarekin: ubide estuetan datoz, apenas lurrunduz; baina itsasora iritsi eta zabal-zabal han gelditzean, agudo eta oharkabean ebaporatzen dira”.

Lau Haizeak

Jer 49,36: “Ortziko lau ertzetatik haizea ekarriko dut... lau haizeetara sakabanatuko ditut hango bizilagunak”. Ez. 37,9: “Bizi-arnasa, zatoz lurraren lau aldeetatik eta haizeman gorpu hauei, bizi daitezen”. Apok.7,1: “Lau aingeru ikusi nituen lurraren lau ertzetan zutik, lurreko lau haizeei eusten...” Haize hau izanen da ‘spiritus’, ‘arnas biziemalea’, ‘inspirazio ekarlea’, irudi polit bezain esanguratsu eta sakonak denak ere...

Antzina-antzinakoek lau haize besterik ez zuten bereizten. Aristotelek, berriz, 12 haize (Meteorologia, 4). I mendean, 8 haize bereizteko gauza ziren, Aristotelen 12ak klaro bereiztea gehitxo zela iritzi zioten.

Senecak, “Naturales Quaestiones” bere lanean, eztabaida luzea egiten du 12 haizeak direla eta. Pliniok, berriz, “Historia Naturalis” liburuan, honela dio: “Antzinatean, ludiaren lau kantoietatik haize bana bereizten zuten; (Homerok berak ere ez daki 4 haizerena besterik). Baina, sistema motxa bilakatu zen hori: beste 8 erantsi zizkieten. Baina, 12 haizeena konplikatu egia zen, edozeinek bereizteko. Eta horrela, azkenean, 8 haizetan utzi zuten kontua: bi haize bereizten dituzte, zeruko lau kantoietatik bina”.

Eguraldiaz jakitearen estimazioa

Eskuan eta eskuerara ez zutena, hainbat buruhauste ematen zien ezin programaturiko giroa, hori hobe zen beti Jahveren eskuetan uztea. Baina, bada Biblian, Ebanjelioan batipat, herriaren jakitate argi baten berri ematen digunik, Jesusen hitzetan gainera. Mateorenean honakoa:

Mat 16, 2-3: Ilunabarrean esan ohi duzue: “Arrats gorri, bihar eguzki”; eta goizean: “Goiz gorri, arrats euri”. Badakizue zeruaren itxurari iragartzen, eta ez zarete gauza garai hauen seinaleei igartzeko?

Jesusek, seinale eske datozkienei aurpegiratu die. Asmakizun eta jakitate estimatutzat du Jesusek eguraldi iragarpena edo aroari antzematea. Atsotitzek, gaurrarte gurean gorde izan diren berberak, aro tankera eta antza jasotzeko balio zuten orduan ere. Beste seinaleei halaxe antzemateko eskatzen die farisearrei.

Antzerako kontua dakar Lukasenean ere:

Luk 12, 54-56: Sartaldean lainoa ikusi orduko: “Euria dator” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Hego-haizea denean, berriz, “Sargoria dugu” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Itxurazaleok! Badakizue zeru-lurren itxurari antzematen, eta nola ez diozue antzematen garai honi?

Berriro, aro antzemaleen eredua, zabaldua inondik ere, eta estimatua, exenplutzat ateratzeko behin eta berriz. Halere, kanpoko kontu ezkutu horientzat bezala, bestelako antzemate eta igartze baten eske dabil Jesus, gure bizitzan argi ibili nahi badugu...

Jesusek bi pasarteotan eta Bibliak orokorrean, hainbeste inporta zaigun aroarekin bezain erne, atezu eta igertzeko pronto nahi gaitu bizitzari sakonagotik erreparatu eta elkar-bizitzarako argi eta adi. Aroarekin bezalatsu baita geure eta anai-arreben buru-bihotzetako aro eta klima giroa ere: giro deitzen diogu geure egoera puntualari ere, klima, tenplea, gure bero edo hotzari, laino ilunkarari, erauntsi giro edo ekaitzuneei, gure lurrunaldi nahiz argiune eta itzalei... meteorologia osoa aplikatu ohi dugu gure barneko giroarentzat ere.

Gerziarren sasoian, jakituria zorroztu eta zientziari bidea zabalduko zioten eta ondorioak ere halakoak. Baina, kontuz aroa eta bere fenomenoak naturaren aldetik argitzen ta esplikatzen saiatu gero! Erlijioa gainera zetorkizun puntuan, anatemaz baztertzerak. Zientziari kostako zitzaion fenomeno eta gertakizun naturalak ulertzea eta esplikatzea: erlijioak indar handia zuen, hainbat jainko (edo Jainko izen hainbat, aistian ikusi dugunez) baitziren tartean zeudenak, eta inork ez zuen nahi haiekin gaizki etortzerik... Erlijio eta zientziaren arteko sestra eta tirabirak mende luzetan jarraiko zuten...

Greziarren artera iritsita, han bertan dute aipatu tirabiraren berri garbiena. Guri etorri zaiguna hangoen jakituria bada ere, lehen sasoian, astrologia bidea zabaltzen doan arren, mitologiak berebiziko indarra du artean ere. Bi bide horiei hirugarren bat etorriko zaie lagun: erreparatze enpirikoa, gero eta zehatzagoa, fidagarriagoa dena. Honen denen aztarrenak poema ttiki eta handietan, epopeia ederrotan geldituko zaizkigu, Odisean nahiz Iliadan, K.a.IX mendekoetan: artean ere, Zeus airearen gobernari da eta Poseidon itsasoko mandamasa. Halere, apurka, behaketa eta erreparatze enpirikoa indartuko da.

Homerok (900 K.a) eguraldi aldaketak jainkoen kapritxotzat hartzen ditu. Hesiodok (750 K.a.), orduko herriko jakituri arrunta biltzen du esaera zahar ta usadiotan. Muestran bat: “Adi zeru goian kurrilloen kurrixkari: goldea sartzeko garaia duzu, euria laster dator eta”. Pokratesek, medikoen aitak (V mendea, K.a) eguzki izpiak hartzea eta haizexka gozotan egurastea zirela, zioen, botikarik onena.

Aristoteles (350 K.a) iristean, ordurako zientziak bere bidea egina du eta meteorologian badu zeresanik eta tradiziorik ere. ‘Meteorologika’ tratatua idatzi zuen,

non meteorologiari buruzko arazo zientifikoak natural-natural tratatzen diren. Hain justu, liburu hau izango da zientzia gizonentzat iturri nagusi eta bakarra 2000 urtetan.

Halere, zientzia bere bidea urratzen eta sendotzen badoa ere, bai orduan grekoen artean, edo gero erromatarren artean, jendeak nahi zuena, beti, zer eguraldi egingo zuen: ez zitzaion inporta zergatik edo nola zetorren zetorrena, baizik zein eguraldi zetorren... Eta, noski, eguraldia aurrez jakin nahiak modako egin zituen iragarpen pauso eta entseguak. ‘Prognostikos’ hitza bera haiengandik datorkigu.

Zertarako jakiteko gose hori? Gehienik, gudarien bidaia eta gerraren aurrekontuetarako nahi zuten jakin. Hori baitzen orduko industria ia bakarra. Nekazariek ere jakin nahiko zuten, baina laguntza handirik gabe pasa beharko zuten, orduan ere.

Ba, arrasto horren barruan, Aristoteles maisuaren ikasle batek, Teofrastok (300 K.a.) erregela eta norma mordoska bildu eta prestatu zuen. Baziren tartean argitasun baliosak, gerora ia gehienak baliorik gabe gelditu badira ere: pentsa zenbat balio zezakeen urte osorako egin eta idatzirik ematen ziren ‘prognostikos’ horiek. Eta 7 iragarpen ageri dira sorta haretan urte osorako normatzat.

Handik urte batzutara, (270 K.a.), Arato de Solik liburu bat idatzi zuen “Prognostika” izenburua zuena, dena bertsotan egina, eta urte oso baterako normak argitaratzen zituenena...

Erromatarren artean ere, berdintsu jarraitu zuen, grekoen berri bazutelako batetik, zientziaren bideen berri, alegia; eta mitologia propiala ere bazutelako bestetik, beren jainkoekiko lotura estua... Hala, entziklopedia zabalak bildu ahal izan zituzten, Plinioren ‘Historia Naturalis’ adibide, non 2000 lan greziar eta erromatar jakintsuenak biltzen diren... Beste bilduma ospetsuetakoa Tolomeoren ‘Tetrabiblos’(4 liburu), zeinu meteorologikoen laburbilduma zekarrena, Ertaroan eguraldi iragarpenetarako eskuliburuxka izango zena...

Zelten kultura

Grekoek bezala erromatarrek ere, txundituta zekusaten herri barbaro arrotz haien kultura: gerlari beldurgarriak bai, baina baita liluragarriak ere. Zerk zemaian halako erakargarritasun bitxia, erlijioak akaso, edo naturarekiko biziera naturalak?

Zeltek ez zuten ikasi idazkerarik. Arbuia egiten zuten propialki idazte oro, besteren mende uzten zutelako ezagutza, eta idazkia gaizki ulertua, komenientzietara erabilia eta manipulatu izan zitekeelako. Ahozko hitz eta esanetan, hortatik erranairu eta esaldi lortuen distira eta atsotitzak lantzeko, sortzeko eta hartan jakituria biltzeko eta transmititzeko enpeinoa. Druidak eta bardoak zituzten orduko apaiz eta esatari errespetatuak.

Bitxia da zein pertsonaia tipo zituzten estimatuenak eta errespetuz entzutekoak: gerlari balienteak, druida jakitsuak eta emakume langile mailaz gorakoak, gizatasun normalez goitikoak.

Lehen datu eta idazkiak, kristau idazleen bidez iritsi zaizkigu: ez, noski, beste inon kopiatuta (ez zuten idazkirik), baizik bertan entzun eta jasotako olerki eta atsotitz landuen bidez jasotako ohitura, sineste eta portaera biltzen dutenak. Zelten poesiak jakitate apalaren ekarria du berekin: naturarekiko errespeto sakon zintzoa eta

berarekiko jakite umil ziertoa. Eta heriotzaz nahiz geroaz, konformidade naturala.

Artisautza maite zuten, langile trebeak omen, olerkari eta koplariak (idazten ez zutenez, ahozko ekarria biziki zaintzen zuten: ez harritu bertsolaritzak gurean duen onespenezekin), kantuan oso fin eta abilezia handikoak (poema hainbat kantuz jasotzeko eta transmititzeko trebezia berezia zuten), borrokan apartak, druidak ziren maisu eta berauek zuten eskola, baina baita emakume hainbatek ere (emakumeenak omen sendatzeko ahalmena eta ospakizun bildu familikoena: noski, gero kristauek ere, inkisizio garaian batipat, sorgintzat hartuko zituzten). Borroketan, emakumeak ziren oihi eta kantu animatzen zutenak. Inoiz gudamutilen artera sartu eta oihi, txilio ta garramistoz, etsaiak izutu ere bai. Ez ziren asko auzo haietan, baina errespetua eta maina franko bai, bazizuten. Gerrero talde asko izan ziren azpiratzen saiatutakoak. Errepasatu Asterix eta Obelix...

Asko maite zuten jakitatea: Klimatologia

Errespeto sakon bihotz hondokoa zioten naturari: beren etxe ta bizitoki zena, barrubarrutik maite zuten. Eguneroko bizite horren giroan jasoko zuten aro momentuko eta eguneko, halanola urtarotako eta saio luzeagoetako klima bera ere. Haren mende bizi zirenez, ahalik eta gertuenetik nahi zioten antzeman, ahalik eta azkarren jakin nondik eta nora mugi edo porta zitekeen eguraldia.

Familiak eta auzo bakoitza aroaren eta klimaren mende bizi ziren: nolako uzta bildu, zenbateko laboreak lortu edo azienden gorabeherak denak, asko inporta zitzaizkien, hartatik bizi behar zutelako. Ez zegoen negozio zantzurik beren baitan: bizimaina, besterik ez. Ez zioten amalurrari behar baino gehiago eskatzen eta ateratzen. Toki batean ezin bazuten, harantzagoko batera joko zuten. Hemen lehortea luze bazihoan, segi lur hezeagoetara. Lurralde barrualdeko uztak eta aziendak bezala, berdin inportako zitzaien arrantzua ere.

Eguzkia gurtzen zuten: hargandik bait zetorkien bizia eta argia. Bere ibilera zaintzen zuten, ilargi amandrearena bezalaxe. Ludiaren martxa eta amalurraren indarrak zaintzeko, azaleko eguraldi zikloei erreparatuz antolatzen zuten bizitza. Ilargiaren asteroko koskak zainduz egin zuten beren egutegia. Oharturik zeukaten ilargiak indar bereziak zituela goraka, beherakoan mantxotzen zitzaizkionak.

Kultura zabal haretatik jasotakoaren aztarnak dauzkagu euskaldunok gure esaera zahar bilduma paregabea. Eguraldi eta aroarekin lotura dutenak 700dik gora ditugu guk, tartean ekialdean zuztarturik ikusi ditugunak; beste inongo herrik ez beste dauzkagu, oparotasun apartekoan. Merezi luke azterketa on bat egiteak.

Baina, gure propialak bakarrik ez diren seinale, hara hemen, oraintxe gaudeneko data seinalatu hauetako kontu bat, Zozomikoteena. Pentsatuko genuen, igoal, euskaldunok sortu eta jakindako kontua zela. Ba, ez. Ikusagun kontua bere zabalean sakonduz.

ZOZOMIKOTEAK

Barandiaranek jasotako eta bildutako kontakizunen arabera, martxoaren azken bi egun eta erdiak eta apirilaren lehenengo bi egun eta erdiak dira, oso euritsuak izaten direnak.

Orixe idazleak *Euskaldunak* poema sortan zentzu berexi samarra damaio ‘zozo-bikote’ izango omen litzatekeen honi. Egia da zozoa gehienbat martxoaren amaieran eta

apirilaren hasieran hasten dela habiak egiten.

Nikolas Segurola gure baserriko artzaiak honela kontatu zidan: Artzaiak omen zion, pozik eta desafio: “Martxo, txartxo,/ nere ardi eskasenak / errez egiten zioz / ire errekarri salto”.

Ta Martxoak orduan: “Apiril biribil, / eman eizkidak / egun eta erdi. / Neureak badizkiat / beste bat eta erdi / artzai fanfarroi horri / kendu deizkiodan / ehun ardi eta begi”.
Eta jo ekaitzak goi ta behe, izugarritzko eurite ta uholdeak, errekek gainezka, eta eraman dizkiote ardi guztiak artzaiari. Orduan, ahari hain ona zuena salbatu nahi, hartu du bizkarrean eta hor doa... baina erreka hazia pasatzean, aharia izutu da, jira du burua eta, adarrez jota hor kendu dio begia”.

Hemendik kanpora ere badu tradizioz. Gaztela aldean: *Dijo marzo al pastor: con tres días que me quedan y tres que me preste mi hermano abril, he de poner tus ovejas a parir.*

Frantzia antzeko istoriorik bada. Malicorne musika taldeak bere disko bateko liburuxkan txoria aipatzen zuen: "...Eta txoriaren arrautzak habian jelatuko ditut" zen martxoak apirilari hiru egun eskatzen zizkionean esaten zuena.

J. P. Chassanyren “Dictionnaire de Meteorologie Populaire” izeneko liburuan argi dator Frantziako Lozere departamentuan nola kotatzen duten: han 7 egun osatzen dituzte, martxoaren 28tik apirilaren 3ra. Ohiko elkarritzeta... eta ordurarte giro ederra, eta txekor gaztea belazeratu behar zuena han gelditzen da, goserik akabatua.

Auvergne aldean, artzaintsa gaztea da, martxoaren 27an, pozik. Ba, martxoaren lezioa da: “Zu azkarregi pozten zara, zure behitalde eta ahuntz eta antxume guztiak galduko dizkizut...”

Korsikan, herri-ipuinak martxoari desafio dagion artzaina azaltzen du... noski, laster etorriko da martxoaren bengantza, gure Nikolas Segurolaren natzera kontatua...

Vosgos eskualdean, zozo-ama edo zozoa da hapan jelaturik akabatuko dena: “Je gèlerai la mère (batean), le merle (bestean).

Hementxe legoke ZOZOMIKOTE lotura. Izan ere « merle » frantsesez ZOZOA da.

Urdiainen *Ordizegunak* erabiltzen omen da; badakigu martxoaren 30ean “Artzain-eguna” ospatzen dela. Hortaz, artzainen eta Zozomikoteen arteko lotura ere hortxe legoke gurean. ZOZOMIKOTE izenez, Europatik etorria, eta ARTZAI-EGUN, edukiz, artzaia delako kaltetua.

Kaltea, noski, gurean artzaiarekin lotu izan da, normala denez.